



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lau apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

9. ERABAKIA: AZELERAZIO GUNEN PROPOSAMENA **ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA GARATZEKO (ZAEEnR)** (8.8 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari azaldu dio, 2023ko martxoaren 10eko Frantziako 2023-175 legearen 15. artikulua, energia berriztagarrien ekoizpenerako azelerazioari buruzkoa, aukera ematen diela herriei energia berriztagarrien ekoizpena garatzeko Azelerazio Guneak (ZAEEnR) proposatzeko. ZAEEnR eremuek energia berriztagarriak (fotovoltaikoa, metanizazioa, eolikoa, geotermia, eta abar.) ekoizteko ekipamenduak har litzaketen sektoreen identifikatzea ahalbidetu behar dute.

Ez dute baimenik bermatzen, instalazio horiek indarrean diren araudiak bete behar baitituzte, eta dena den, proiektuak banan bana aztertuko dira.

Azaldu du lege haren arabera herriak libreki finka ditzakeela publikoarekiko hitzartzearen baldintzak, zehazturik ZAEEnR eremuen proposatzeko erabakia berantetik 2024ko martxoaren 31an hartu behar dela, eta Pirinio Atlantikoen energia trantsizioarako beharrezkoak diren industria-proiektuak eta energia berriztagarrien garatzeko proiektuak aztertzen dituen prefekturako erreferenteari helarazi behar zaiola.

Epea biziki laburra izanik, Auzapezak azelerazio eremuak proposatu ditu energia berriztagarrien ekoizteko lurreko ekipamenduen ezartzeko, ondotik zehaztu den bezala:

- Herrian existitzen diren teilatu azalera guztiak, panel fotovoltaikoak eta eguzki panel termikoak ezartzeko,

- Herriko eihera zaharrak energia hidroelektrikoa ekoizteko.

- Metanizazio unitateak har ditzaketen terrenoak

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, eta epe biziki laburra kontuan izanik, biztanleriarekin hitzartzeko baldintzak honela finkatu ditu: publikoarentzako erregistro baten ezartzea herriko etxea irekia den orduetan eta 15 egunez.

Hitzartze horren ondotik, lehenago zerrendatu energia berriztagarrien ekoizpenerako lurreko instalazioen ezartzeko azelerazio eremuen eta hitzartze-erregistroaren berri emanen zaie honakoei:

- Pirinio Atlantikoetako prefektura-erreferente bakarra den Idazkari nagusiari

- Euskal Hirigune Elkargoa,

- Ipar Euskal Herria eta Seignanx-eko Lurralde Koherentzia Eskemaren ardura duen erakunde publikoari.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balizko boz kopurua : 15

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.